



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 6a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen baremoetan, hizkuntzen jakintzaren balorazioan, italiara ere sar dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alokairuko etxebizitza babestuak egite aldera lurzorua erosteko neurriak, udalekin batera, har ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da abian jar dezan menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako norbanakoaren eskubide sozialen txartela. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Zangozan sartzeko Aragoi ibaiaren gainetik beste zubi bat eraikitzea errazte aldera beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da adineko pertsonak teknologia berrietara hurbiltzeko hartutako neurriak zabal ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “La devoción a San Francisco Javier en México” liburuaren argitalpenari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Lekarozen hizkuntza-murgilketako zentro bat sortzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen iritzia jakiteko, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).
- Galdera, zigor juridiko bat jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak euskarekiko jazarpen politikarekin jarraitzeko asmoa duen jakiteko, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Industria Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko multzoko plana ez tramitatzeko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (10. or.).

- Galdera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak toki entitateetan sartzeko neurriak hartzeko eta teknologia horiek finantzatzeko eta abian jartzeko erabili diren irizpideei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (10. or.).
- Galdera, Iruñeko erregio etxeentzako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Erronkari ibarrean mediku titular bakarra dagoen jakiteko, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (11. or.).
- Galdera, 643/2000 kasazio-errekurtsoan Auzitegi Gorenak emandako epaia betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den tramiteei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Bellosi jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Spanair konpainiak Noaingo aireportuan jarduteko hartutako konpromisoari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora ebakuntza egiteko eta erradoterapiarako, 2003. urtetik gaur arte, bideratu diren gaixoei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (13. or.).
- Galdera, 52225 541006 2500 3111108 kontusailaren betetze mailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (14. or.).
- Galdera, “Osasun laguntza beste zentroetan” izeneko kontusailaren –734.998 euro– aurrekontu bateratuari, baimenduari, erabiliari eta bete gabekoari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (15. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen baremoetan, hizkuntzen jakintzaren balorazioan, italiera ere sar dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen baremoetan, hizkuntzen jakintzaren balorazioan, italiera ere sar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko urriaren 30an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak:

Abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Agindua aldatzen duen otsailaren 9ko 22/2001 Foru Aginduaren bidez aurreikusi zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak euskararen, frantsesaren, ingelesaren eta alemanaren –azken hirurak Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak diren heinean– ezagutzak balioesteko berariazko probak deitzeko aukera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko prozeduren esparruan.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren martxoaren 8ko 18/2004 Foru Aginduaren bidez arautu zituen Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko euskararen, frantsesaren, ingelesaren eta alemanaren ezagutzak balioesteko berariazko probak.

Ez dirudi logikoa italiera bezalako hizkuntza bat kontuan ez hartzea; izan ere, Nafarroako Gobernuaren menpeko zentro ofiziala den Iruñeko Hizkuntza Eskolak 17 urte daramatza hizkuntza hori irakasten. Urte horietan, 600 bat ikaslek eskuratu dute oinarrizko zikloko ziurtagiria eta 150 inguruk goi mailako zikloko ziurtagiria. Gaur egun, Nafarroako 330 herritar daude matrikulatuta. Hizkuntza erromaniko hori ikasten duten langileen eskubideak ere kontuan hartu beharko lirateke.

Hori dela eta, bidezkoa da proposatzea italiera ere kontuan har dadin funtzio publikoan sartzeko baremoetan eta NAPIko zerbitzuek Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko egin dituen probetan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

1. Italiera sar dezan Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko aplikatzen diren hizkuntzen ezagutzari buruzko merezimenduen baremoetan.

2. Italiera sar dezan Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko egiten diren hizkuntzen ezagutzari buruzko berariazko probetan.

Iruñean, 2006ko urriaren 24an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitza babestuak egite aldera lurzorua erosteko neurriak, udalekin batera, har ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitza babestuak egite aldera lurzorua erosteko neurriak, udalekin batera, har ditzan"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko urriaren 30an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Argi dago Nafarroako Gobernuaren alokairuzko etxebizitzei buruzko politikak porrot egin duela,

eta kontuan hartu behar da merkatu horrek nafar askorentzat eta foru erkidegoan bizi diren askorentzat duen garrantzia.

Bestalde, udalak dira gai honekin zerikusi handiena dutenak, horrek lurraldean eta plangintzan duen eraginagatik eta arlo horretako eskumenengatik, nahiz eta horiek administrazio bat baino gehiagoren eskumeneoak izan. Horregatik, udalek alokatzeko etxebizitza babestuak eraikitzeke lurzorua erosteko neurriak hartzea planteatu da. Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lurzoruaren erosketari finantzazko beharrezkoa den zorpetzea ez dezan kontuan hartu toki entitateei zorpetze gaitan aplikatzen zaizkien legezko finantza-ratioetarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kreditu biguneko lerroak ezar ditzan, udalerriri eta toki entitateei halako eragiketarako finantzatzea ahalbidetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gobernuaren eta udalen arteko funts ekonomiko itundu bat ezar dezan xede horretarako.

Iruñean, 2006ko urriaren 27an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako norbanakoaren eskubide sozialen txartela.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako norbanakoaren eskubide sozialen txartela."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko urriaren 30an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, presaz izapidetu eta Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Minusbaliotasun mailaren frogatzea errazteko beharra dela eta, beharrezkoa da menpekotasun

egoeran dauden pertsonentzako banakako txartel bat egotea, administrazio publikoetan nahiz zerbitzu publikoetan erabiltzeko eta era guztietako entitate pribatuekin ere erabiltzeko. Are gehiago une honetan; izan ere, Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan, hurrenez hurren, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Lege proiektua eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektua ari dira izapidetzen.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako norbanakoaren eskubide sozialen txartela abian jar dezan, hala nahi duenak bere minusbaliotasun egoera edo gradua frogatu ahal izateko, eta etorkizuneko Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomiari buruzko Legean, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean edo gainerako lege edo erregelamenduetan aitortzen zaizkien eskubideak baliatu ahal izateko.

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zangozan sartzeko Aragoi ibaiaren gainetik beste zubi bat eraikitzea errazte aldera beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Zangozan sartzeko Aragoi ibaiaren gainetik beste zubi bat eraikitzea errazte aldera beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko urriaren 30an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, presaz izapidetzeko eta Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da errepideen plan zuzendarian sar dezan Zangozan sartzeko Arga ibaiaren gainetik beste zubi baten eraikuntza.

Zioak:

Gaur egun, Zangozako sarrera nagusia Aragón ibaiaren gaineko metalezko zubia da, eta horren ondorioz, trafikoa etxegune historikotik eta Santa Maria elizaren aurretik igarotzen da. Hain zuzen, eliza horren balioa eztaba daezina da, monumentu nazional deklaratu zuten eta bere portalea Santiago bideko ederrentzat hartzen da.

Ibilgailuen trafiko handiak sortzen duen kutsadura eragina du portale horren kontserbazio egoeran, eta halaxe egiaztatu ahal izan zuen duela gutxi Zangozara bisita egin zuen Nafarroako Parlamentuko ordezkariak.

Bestalde, trafiko handia izaten da etxegune historikoan eta hirigunean, eta gune hori Erdi Arokoa denez eta kale estuak dituenez, ez dago prestatua

hain trafiko trinkoa jasateko. Gaur egungo zubiak ere behar izan ditu zaharberritze eta mantentze lanak, bai zati metalikoak, bai harlanduzko zatiak, hondatuta baitago.

Zangozaren etorkizuneko garapenak, udalak erdigunetik trafikoa kentzeko –kale nagusia oinezkoentzat bihurtzea, inguruko orubeetan aparlekuak jartzea– eta hiriko jarduera, merkataritza eta zerbitzuak berriro bultzatzeko hartutako neurriek foru erakundeen parte-hartzearekin soilik gauzatu daitezkeen garrantzi handiagoko jarduketak eskatzen dituzte.

Arrazoi horiei gehitu behar zaizkie Nafarroako Gobernuak eginiko adierazpen publikoak. Horien arabera, 2006. urteko aurrekontu ekitaldia superabitarekin amaituko da.

Mozioren testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Zangozan sartzeko Arga ibaiaren gainetik beste zubi bat eraikitzea errazte aldera, eta zubi hori eraiki dezan.

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da adineko pertsonak teknologia berrietara hurbiltzeko hartutako neurriak zabal ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da adineko pertsonak teknologia berrietara hurbiltzeko hartutako neurriak zabal ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalak dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko urriaren 30an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Aurrerapenak izan diren arren, gure erkidegoa eten digitala pairatzeko eta Europar Batasunak teknologia berrien arloan ezarritako irizpideetara ez iristeko arriskuan dago. Hori dela eta, beharrezkoa da neurri handiagoak hartzea gure herritarrek baldintza hobek izan ditzaten.

Horiek horrela, mozi hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Adineko pertsonen teknologia berrietara egiazki hurbiltzeko neurriak har ditzan, internet bidezko jarduerak sustatzeko, hala nola posta elektronikoa erabiltzea, internet bidez erosketak egitea, egunkariak irakurtzea, medikuarengana joateko hitzordua hartzea eta ikastaroak egitea, bereziki gure lurraldeko landa eskualdeetan eta urrunen dauden eskualdeetan.

2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei buruzko prestakuntza eta aplikazio plan orotarikoa ezar dezan, "bazterketa digitala" pairatzeko arriskuan dauden emakumeentzat. Plan horrek gizartearen parte-hartze zabala izan behar luke.

3. Interneten konexioa duten etxe kopurua handitzea susta dezan, ekipamendu informatikoa,

banda zabaleko konexioa eta oinarrizko prestakuntza barne duten "konexio paketeen" interesik gabeko finantzaketaren bidez.

4. Finantzaketa-neurriak har ditzan unibertsitateko ikasleentzat, banda zabaleko hari gabeko konexioa duten ordenagailu eramangarriak erosten laguntzeko, interesik gabeko eta gehienez 2000 euroko maileguen bidez.

5. Unibertsitate Publikoari itzuli beharrik gabeko laguntzak ematea, hari gabeko interneteko sARBIDE kopurua (WI-FI azpiegitura) handitzeko unibertsitatearen campusean.

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

F saila:
GALDERAK

Galdera, “La devoción a San Francisco Javier en México” liburuaren argitalpenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, “La devoción a San Francisco Javier en México” liburuaren argitalpenari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregulamentuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak “La devoción a San Francisco Javier en México” izeneko liburu argitaratu du. Bertan Amerikako indigenen aurkako adierazpide xenofoboak eta kutsu arrazistakoak agertzen dira; hain zuzen, Amerikako lurraldea odolez eta armen bidez konkistatu zuten Gaztelako gudarosteek indigenak sarraskitu zituzten.

Aipatu liburuaren hitzaurrea Miguel Sanz Sesma Gobernuak lehendakariak idatzi du.

Galdera:

Zergatik argitaratu du liburu hori Nafarroako Gobernuak? Egokia al da sarraskiaren, konkistaren eta fanatismo erlijioso katolikoaren apologia egiten duten liburuak argitaratzea, kontinente bat indar militarren bidez eta milioika pertsona hilda konkistatu zuen armadaren zerbitzura?

Iruñean, 2006ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Lekarozen hizkuntza-murgilketako zentro bat sortzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen iritzia jakiteko.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Lekarozen hizkuntza-murgilketako zentro bat sortzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen iritzia jakiteko.

Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Aralar parlamentuko taldeko kide denak, Nafarroako Legebiltzarreko araudiari men eginez, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari. Erantzuna ahozkoa izatea eskatzen da Osoko Bilkuraren aitzinean.

Nafarroako Presidenteak, Sanz jaunak, Erkidegoaren Egoerari buruzko saioretan adierazi zue-
nez, Gobernuak Lekarotzen erosi berri duen erai-

kinean, hizkuntzen murgilketarako ikastetxea sortzeko asmoa omen duo

Galdera

Zein da zehatz-mehatz Nafarroako Gobernuaren asmoa? Nolakoa izanen da ikastetxea? Nork kudeatuko du? Zein izanen dira bertan landuko diren hizkuntzak?

Iruñean, 2006ko rriaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, zigor juridiko bat jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak euskarekiko jazarpen politikarekin jarraitzeko asmoa duen jakiteko.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, zigor juridiko bat jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak euskarekiko jazarpen politikarekin jarraitzeko asmoa duen jakiteko. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zioak:

Urte honen hasieran, Lizarrako Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen hiriaren bi izen ofizialak, hain zuzen, Estella eta Lizarra, izen bakarraz ordezte, Estella-Lizarra, eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak arrazoa eman dio.

Hala, auzitegiak Nafarroako Gobernuaren izen aldaketa ez baimentzeko erabakiaren aurka Lizarrako Udalak aurkeztutako errekurtsioa onartu du. Horrela, Gobernuaren erabakia ezeztatzen du "ordenamendu juridikoarekin bat ez etortzeagatik"

Aldiz, udalak "herriaren izena aldatu eta Estella-Lizarra izena jartzeko" duen eskubidea aitortzen du.

Epaiak –haren aurka kasazio errekurtsioa aurkez daiteke– zorrotz egiten die aurka Nafarroako Gobernuaren argudioei; hain zuzen, Gobernuak Euskarari buruzko Foru Legea aipatu zuen aldaketa egiteko baimenik ez emateko. Auzitegiak dioenez, lege honek "ez du baimenik ematen, ezta ukatzen ere, eremu mistoko udalerrri baten izena gaztelaniazko eta euskarazko toponimoekin osatzeko", hau da, "ez du inolaz ere debeketzen udalerrriaren izena bi hizkuntzetan erabiltzea", Gobernuak zioen moduan. Horretaz gain, epaian Konstituzioaren 140. artikulua aipatzen da; horren arabera, udalak badu aipatu aldaketa egiteko ahalmena, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearen bidez. Hori dela eta, auzitegiak dio Gobernu hiriaren izen aldaketa berrestera edo onartzera "behartuta" dagoela.

Galdera

Gobernuak euskararen arloko politikaren aurkako beste makilkada juridiko bat jaso du. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut: Nafarroako Gobernuak euskararen aurkako jazarpen kanpainarekin tematuta jarraitzeko asmoa du? Edo hizkuntza politika zentzudunagoa eginen du eta gaztelanidunen eta euskaldunen arteko bizikidetzeta ona izan dadin zaintzen saiatuko da eta udalen eta Nafarroako herritarren nahia errespetatuko du?

Iruñean, 2006ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Industria Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko multzoko plana ez tramitatzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Industria Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko multzoko plana ez tramitatzeko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, lehendakariorde eta Economía eta

Ogasun kontseilariak ahoz erantzun ditzan Osoko Bilkuran:

Komunikazioetarako Estatuko Idazkaritzaren 2006ko ekainaren 29ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko plan bateratua. Hori ikusita:

1. Plan bateratua estatuaren eta foru erkidegoaren arteko konpromisoak zehazten dituen agiria izanik, zergatik ez zen itun gisa izapidetu? Eta horrela egin ez bada, zergatik ez zaio Nafarroako Parlamentuari plan hori sinatu izanaren berri eman?

2.- Plan bateratuari dagokionez, zer neurri hartu ditu foru erkidegoak hura betetzeko? Zer urrats eginen dira?

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak toki entitateetan sartzeko neurriak hartzeko eta teknologia horiek finantzatzeko eta abian jartzeko erabili diren irizpideei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak toki entitateetan sartzeko neurriak hartzeko eta teknologia horiek finantzatzeko eta abian jartzeko erabili diren irizpideei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Toki Administrazioiko Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Toki Administrazioiko kontseilariak Toki Administrazioiko Batzordean erantzun ditzan:

Nafarroako udalerriek teknologia berrien arloan duten egoera ikusirik, ondoko galderak aurkeztu ditugu, batzordean erantzuteko:

1.- Zer irizpide hartu dira kontuan toki entitateetan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzeko neurriak ezartzeko, finantzatzeko eta abian jartzeko?

2.- Zeintzuk dira arrazoiak –halakorik balego– Nafarroako hiri jakin bat hautatzeko, bertan estatuko eta Europako funtsekin finantzatutako zerbitzuak ezartzeko? Zer aurreikuspen dago Ciudades Singulares programaren bidez informazioaren

gizartea garatzeko finantzaketa eskuratzeari buruz?

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Iruñeko erregio etxeentzako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera, Iruñeko erregio etxeentzako dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zer diru kopuru eman zitzazkien Iruñean dauden erregio etxeei dirulaguntza gisa 2005. urtean? Eta 2006. urtean?

2.- Zer diru kopuru eman zitzazkien estatuan eta atzerrian dauden “Nafarroako etxeei” dirulaguntza gisa 2005. urtean? Eta 2006. urtean?

Zehaztu etxe horiek zein probintzian edo estatutan dauden, eta bakoitzari eman zaion diru kopurua.

Iruñean, 2006ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Erronkari ibarrean mediku titular bakarra dagoen jakiteko.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Erronkari ibarrean mediku titular bakarra dagoen jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hedabideen bitartez jakin dugu Erronkari ibarrean mediku titular bakarra eta asteburuko mediku bat besterik ez daudela eskualde osoari laguntza emateko; izan ere, hiru mediku titularretatik bi lekuz aldatu dira, ordezkorik jarri gabe. Hori dela eta:

1. Egia al da hori?
2. Egia bada, noiztik ari da egoera hori gertatzen?
3. Zer egin behar du Nafarroako Gobernuak arazo hori konpontzeko eta zer epetan?

4. Zergatik iritsi da egoera horretara? Zergatik ez da garaiz esku hartu eta lekuz aldatutako bi mediku titularren ordezkorik jarri, aldez aurretik jakina bazen lekuz aldatu behar zirela?

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, 643/2000 kasazio-errekurtsoan Auzitegi Gorenak emandako epaia betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den tramiteei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 643/2000 kasazio-errekurtsoan Auzitegi Gorenak emandako epaia betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den tramiteei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko maiatzaren 24an, Auzitegi Gorenak 643/2000 kasazio-errekurtsoari dagokion epaia eman zuen. Horren bidez, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 1996ko otsailaren 14ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartu zen –ebazpen haren bidez, amaiera eman zitzaion 1994ko ekainaren 20ko Ebazpenaren bitartez deitu zen Nafarroako Foruzaingoan oposizio bidez sartzeko prozesuari–. Halaber, Auzitegi Gorenaren epaiak inpugnatutako ebazpena hein batean deuseztatu zuen eta errekurtsoa aurkeztu zuten hiru pertsonen Foruzaingoko kide izendatzeko duten eskubidea aitortu zuen, inpugnatutako ebazpenaren bidez izendatu ziren gainerako pertsonen ondorio ekonomiko eta administrazio-ondorio berekin.

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak edo zer egiten ari da aipatu epaia betetze aldera?

Iruñean, 2006ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Spanair konpainiak Noingo aireportuan jarduteko hartutako konpromisoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Spanair konpainiak Noingo aireportuan jarduteko hartutako konpromisoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Iragan urriaren 19an eta 20an egindako Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidan Nafarroako Gobernuko lehendakariak egin zuen hitzaldiaren eta esku-hartzeen edukia gorabehera, eta urriaren 10ean Herrilan eta Garraio kontseilariak ia informaziorik ez eman arren, urriaren 22an, igandean, eta hedabideen bidez, jakin dugu Spanair hegazkin konpainiak heldu den udaberritik aurrera Noain-Iruñeko aireportuan jarduteko konpromisoa hartu duela. Dirudienez, Madril, Bartzelona, Palma eta Teneriferako hegaldiak izanen dira.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Urriaren 22ko Diario de Navarraren 17. orrialdean agertu zen Spanair hegazkin konpainiak Nafarroako aireportuan 4 urtez jarduteko idatzizko konpromisoa sinatu duela Herrilan, Departamentuarekin. Zein da konpromiso horren izaera eta eduki osoa? Noiz sinatu zen?

Iruñean, 2006ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora ebakuntza egiteko eta erradoterapiarako, 2003. urtetik gaur arte, bideratu diren gaixoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora ebakuntza egiteko eta erradoterapiarako, 2003. urtetik gaur arte, bideratu diren gaixoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eginiko agerraldian, Osasun kontseilariak iragarri zuen gaixoak Osasunbidetik Iruñeko Klinika Unibertsitariora bidali behar zitutela, itxaron zerrendak murrizte aldera.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- 2006. urteko urtarriletik urrira, biak barne, ebakuntzak egiteko bidali diren gaixoen kopurua,

espezialitateka. Hilabete bakoitzeko datuak nahi ditugu, espezialitateka, baita ebakuntza bakoitzaren kostu osoa eta gaixoa Klinika Unibertsitariora bidali izanaren arrazoia ere.

2.- Bidali al da gaixorik azterketak egiteko itxaron zerrendak murrizteko? Hala bada, aurreko galderan eskatzen diren datu berak nahi ditugu.

3.- Klinika Unibertsitariora ebakuntzak egiteko bidali diren gaixo kopuruaren alderaketa, 2003. urteko orain arte. Urte bakoitzeko datuak eta ebakuntzen kostu osoa nahi ditugu.

4.- Osasunbidetik Klinika Unibertsitariora erradioterapia tratamendua jasotzeko bidali diren gaixoak, hilabeteke, urtariletik urrira, biak barne, eta tratamendu horien hilabeteke kostua.

5.- Klinika Unibertsitariora erradioterapia tratamendua jasotzeko bidali diren gaixo kopuruaren alderaketa, 2003. urteko orain arte. Urte bakoitzeko datuak eta erradioterapia saioen kostu osoa nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, 52225 541006 2500 3111108 kontusailaren betetze mailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, 52225 541006 2500 3111108 kontusailaren betetze mailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2006. urteko Nafarroako aurrekontu orokorretako Prestazioak eta Itunak programan, bada "52225 541006 2500. Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza" izeneko kontusaila, 2.000.000 euro dituen.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Kontusail horri dagokion aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta bete gabekoa.

2.- Kontusail horren kargura eginiko jarduerak eta ordaindutako ditur kopuruak.

Iruñean, 2006ko urriaren 26ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, “Osasun laguntza beste zentroetan” izeneko kontusailaren –734.998 euro– aurrekontu bateratuari, baimenduari, erabiliari eta bete gabekoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, “Osasun laguntza beste zentroetan” izeneko kontusailaren –734.998 euro– aurrekontu bateratuari, baimenduari, erabiliari eta bete gabekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2006. urteko Nafarroako aurrekontu orokorretako Prestazioak eta Itunak programan, bada “52225 5410062500 311100. Beste zentro batzuetan emandako osasun laguntza” izeneko kontusaila, 734.998 euro dituena.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Kontusail horri dagokion aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta bete gabekoa.

2.- Kontusail horren kargura eginiko jarduerak, ordaindutako ditu kopuruak eta ordaindu gabe daudenak.

Iruñean, 2006ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2006ko urriaren 16ko erabakiaren bidez, Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria igorri zuen Nafarroako Parlamentura, honek iritzia eman dezan.

Hori dela eta, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikulua xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria tramitera onartzea.

2. Plan horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Dokumentua foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	